

Sagardoaren kontsumoa sustatzeko modu berrien bila

Deusto Business School-eko ikasle talde batek ikerlana burutu du Gipuzkoako tabernetan sagardo-kanilak jartzeko aukera aztertzeke

GIPUZKOAKO TABERNETAN SAGARDO-KANILAK JARTZEA ERAKARGARRIA ETA BIDERAGARRIA al da? Galdera horri erantzuteko ikerketa-lana gauzatu du Deusto Business School unibertsitate-eskolako ikasle talde batek, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearen laguntzarekin.

Azterlanaren egileek Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza ikasketen laugarren maila burutu berri dute, eta gure elkarteko nahiz sektoreko adituen aholkulari-

tza izan dute ikerlana aurrera eramateko.

Gipuzkoako Ostalaritza Elkartek jarri zien gaia mahai gainean, eta sagardoa zerbitzatzeko modu berri horrek merkatuan zer nolako harrera izango lukeen aztertu dute gazteek azken hilabeteotan. Horretarako, elkarrizketa sakonak, talde dinamika bat eta 500 inkesta burutu dituzte, eta gipuzkoarron kontsumo-ohiturei buruzko datuak ere bildu dituzte. Laster ezagutuko ditugu emaitzak.

